



Ziurtasunik eza

1

Begiratu arretaz Emoziotegiko 40-41. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

- Zer ikusten duzu irudian?

- Zer da arrotz gertatzen dena?

2

Zergatik uste duzu hazten dela horrela irudiko zuhaitza (Emoziotegiko 40-41. orrialdeak)? Hautatu.

- Berekoia da eta ez du bere edertasuna partekatu nahi.
- Ez du ziurtasunik kanpoan dagoen horretan, eta babestu egin nahi du.
- Alderantziz haztea erabaki du gainerakoekiko desberdina izateko.
- Arrazoitu zure erantzuna.

3

Irakurri Emoziotegiko 40. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Ziurtasunik eza geure buruarengan konfiantzarik ez izatea da.
- Ziurtasunik ezaren ondorioz, geure burua defendatzen dugu.
- Nabigatzen dugun orotan, ziurtasunik eza sentitzen dugu.
- Lagunek ziurtasunik eza sentiarazten digute beti.
- Ziurtasunik ezak herabetasunez jokatzera garamatza.

4

Osatu definizioak **fidaturen** familiako hitzekin.

fidatu > konfiantza mesfidantza fidagarria fidakorra

- Imanol beti fio da besteez; oso _____ da.
- Imanolengan beti izan daiteke konfiantza; oso _____ da.
- Ez izan _____ Imanolengan; beti betetzen du emandako hitza.
- Nire gurasoengan _____ daukat; ez didate inoiz huts egin.

5

Idatzi **1, 2, 3, 4, 5** Laidak bizi duen egoera ordenatzeko.

- Laidak dagoeneko ez du konfiantzarik Aitorrengan eta nahiago du bakarrik egon.
- Pixkana-pixkana, Laida Aitorrekiko konfiantza galtzen ari da.
- Aitorrek hitz eman zion Laidari Hizkuntza ikasten lagunduko ziola.
- Aitorrek ez dio ikasten lagundu nahi Laidari.
- Laidak Aitorri eskatu dio emandako hitza bete dezala.

6 Irakurri esaldiak, eta sailkatu taulan ikusten dituzun konfiantza faltak.

- Peioren bizilagunek hitz eman zioten landareak zainduko zizkiotela, baina ez zituzten zaindu. Orain, Peiok bere arrebari uzten dizkio landareak hark zaindu ditzan.
- Marak uste du ezingo duela bizikletan ibiltzen ikasi.
- Jonek uste duenez postariak ez dizkiola gutunak uzten, posta-zerbitzuan erreklamazioak egiten ematen du egun osoa.
- Koldok uste du ez dakiela abesten, oso ondo egiten duen arren.

Ez du konfiantzarik bere buruarengan	Ez du konfiantzarik besteengan

7 Irakurri egoera, eta idatzi eskatzen dizkizuten datuak.

Maren eta Liher oso lagunak dira. Liherrek askotan esan dio Mareni behar duenerako hor izango duela beti. Dena den, behin baino gehiagotan, Marenek laguntza eskatu dio Liherri etxeko lanak egiteko, puzzleak egiteko eta abarrerako, eta Liherrek ez dio lagundu. Beraz, orain Maren gauza guztiak bakarrik egiten saiatzen da, edo aitari deitzen dio laguntza behar duenean.

- Nork sentitzen du ziurtasunik eza? _____
- Norekiko konfiantza galdu du? _____
- Zer defentsa-mekanismo hartu du? _____

8 Irakurri egoera, eta erantzun galderi.

Atzo osaba Gorkarekin nabigatzera joan ginen. Nire osabak txalupa motordun bat du. Txangoa egin genuen, eta osabak badia batean geldiarazi zuen txalupa bainua har genezan. Gero, osabak motorra martxan jarri nahi izan zuen, baina ezin izan zuen. Zerbait gaizki zebilen! Ni berehala kezkatu nintzen. Ez nekien zer egin...Txaluparen barruan saltoka hasi nintzen jendearen arreta erakartzeko... baina txalupa modu arriskutsuan balantzaka hastea besterik ez nuen lortu. Nire osaba, aldiz, ez zen asaldatu. Prismatikoekin inguruetara begiratu zuen, bengala bat jaurti zuen, eta berehala hurbildu zitzaigun ontzi bat laguntzera.

Miren

● Nork sentitzen du ziurtasunik eza? Nola jokutzen du?

● Nork ez du sentitzen ziurtasunik eza? Nola jokutzen du?

● Zer esan geniezaioke Mireni lasaitzeko?

9 Zer esan zeniezaioke Emoziotegiko 40-41. orrialdeetako irudiko zuhaitzari konfiantza emateko? Idatzi.

10 Marraztu **ziurtasunik eza** sentitzen duen lore bat, eta, gero, sentitzen ez duen bat.

Ziurtasunik eza duen lorea

Ziurtasuna duen lorea

